

## ANIZTASUNA ETA IMMIGRAZIOA EAEn

*Migrazio-fenomenoaren harira euskal gizartearen aniztasun-maila aztertu dugu 43. panoramika honetan. Horretarako, estatistika arloko bi adierazle hartu ditugu kontuan, aniztasun-indizea eta ekitate-indizea, bai EAE osorako eta bai eskualdeetarako, eta adierazle horien emaitzak aztertu ditugu. Lehen adierazleak aukera ematen digu jakiteko gizartearen aniztasuna zenbatekoa den, gizarte hori osatzen duen nazionalitate kopuruaren arabera. Ekitatearen adierazleak, berriz, aukera ematen digu jakiteko atzeritarren artean zenbatekoa den barne-aniztasuna. Adierazle horiek erabiltzeak ez du aukerarik ematen euskal gizartearen zenbateraino aldatzen ari den zehaztasun handiagoz jakiteko ez eta 165 nazionalitatez osaturiko atzeritarren kolektibo horren konplexutasunean sakontzeko ere.*

### 1. Sarrera

---

Nazioarteko migrazio-fenomenoaren ondorioz, euskal gizarte gero eta anitzagoa da. Azken urteotan, gure gizarte osatzen duten nazionalitateen mosaikoa hazi baino ez da egin, eta hortik beste kultura, hizkuntza, ohitura eta erlijio batzuk agertu dira denboraren joanean. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), 165 nazionalitatek osatzen dute atzerriko biztanleen mosaiko hori. Zifra horrek adierazten du Nazio Batuen Erakundea (NBE) eratzten duten 193 herrialdeetatik ia %85 daudela ordezkaturik EAEn.

1998. urteaz geroztik nazionalitateak nabarmen ugartu dira. Urte horretan atzerriko migrazio-fenomenoa ez zenean hain garrantzitsua EAEn, guztira atzerriko 137 nazionalitate zeuden erroldaturik gure erkidegoan. Bizkaian zeuden, hain zuzen, nazionalitate gehien, aipaturiko 122ak; ondoren, Gipuzkoan, 104 nazionalitate eta, azkenik, Araban, 85 nazionalitate.

Hamarkada batetik gora joan da geroztik, eta nazionalitateen mosaikoa handiagoa eta anitzagoa egin da. 2010ean nazionalitateen kopuruak gora egin zuen nabarmen, eta Araban izan da hazkunde handiena, ia %45ekoa: hala, 85 nazionalitate izatetik 123ra igaro da. Gipuzkoan, 104 nazionalitate zeuden 1998an eta 141, 2010ean; hamabi urteotan, hortaz, %35 hazi da nazionalitate kopurua. Eta Bizkaia, 122 izatetik 152 izatera igaro da, ia %25eko hazkunde.

### 2. Aniztasun- eta ekitate-indizea ulertzeko

---


Gizarte baten aniztasun-maila zehaztu ahal izateko edota migrazio-fenomenoak zer eragin duen jakiteko estatistikako hainbat adierazle daude. **Begirada** honetan bi hartu ditugu oinarritzat: Shannonen aniztasun-indizea eta Pielouren ekitate-indizea. Shannonen aniztasun-indizea da komunita-

Emaitzak zuzenago interpretatzeko, komenigarria da bi indize horien datuak batera aztertzea. Datuak uztartze horretatik lau egoera sor daitezke; beste hainbeste aniztasun-motaren adierazle dira egoera horiek.

1. mota	Aniztasun gutxi eta ekitate gutxi	Gizartean atzerriko biztanleriaren pisu erlatiboa txikia da eta horien artean nazionalitateak ere gutxi batzuk baino ez dira.
2. mota	Aniztasun handia eta ekitate gutxi	Atzerriko biztanleen ehuneko handia da, baina nazionalitate nagusi gutxi batzuk baino ez daude eta atzeritar gehienak nazionalitate horietakoak dira.
3. mota	Aniztasun gutxi eta ekitate handia	Gizartean atzerriko biztanleriaren pisu erlatiboa txikia da eta, horrez gain, ez dago nazionalitate nagusirik edo atzeritarren ehuneko handia biltzen duen nazionalitaterik.
4. mota	Aniztasun handia eta ekitate handia	Atzerriko biztanleak asko dira kopuru aldetik, eta nazionalitate ugarien artean batzuen eta besteen ehuneko parekoa da.

### 3. Aniztasuna EAEn eta Lurralde Historikoetan

2. taulak adierazitakoari erreparatuta, azken urteotan populazioaren aniztasun-maila hazi egin da etengabe. Azken urteotan migrazioak izan duen hazkundearen eraginez, EAeko aniztasunaren indizea 0,26tik 0,45era pasa da 2005etik 2010era. Hau da, bost urtean euskal gizartearen aniztasun-maila bikoiztu egin da ia-ia. Bilakaera orokor hori hiru Lurralde Historikoetako egoerarekin alderatuz gero, ohartuko gara 2010ean Araba dela aniztasun handiena duen lurraldea, 0,59ko indizearekin; Gipuzkoan (0,43) eta Bizkaian (0,42), berriz, aniztasunaren maila zertxobait apalagoa da. Bestalde, nabarmentzekoa da lurraldez lurralde aniztasun-maila horiek iraunkorrak izan direla urteotan guztian, eta, horrenbestez, joera argien adierazle direla indizeak: hala, Araba da lurralde anitzena EAE osoan eta Bizkaia eta Gipuzkoarekin alderatuta, eta azken bi lurralde horietan, berriz, parekoa da aniztasun-maila hori, EAeko baino zertxobait apalagoa. Migrazioari loturiko beste adierazle batzuei erreparatuta, Arabak bestelako bilakaera du Gipuzkoa eta Bizkaia aldean, eta azken biek, berriz, antzekotasun handiak dituzte.



Lurraldez lurralde, datuek erakusten dute 2005etik 2007ra Gipuzkoan eta Bizkaian aniztasun-maila eta hazkundearen eritmoa nahiko parekoak izan zirela eta, aldiz, 2008an eta 2009an, Gipuzkoan, aniztasunak gorakada nabarmenagoa izan zuela Bizkaiarekin alderatuta, EAeko mailetara hurbiltzeraino. 2010ean, ordea, Bizkaian nabarmenagoa izan zen gorakada eta, Gipuzkoan, berriz, gehiago moteldu egin zen hazkundea.

Atzeritarren kolektiboa osatzen duten nazionalitateen arteko ekitate-mailari dagokionez, azken urteotako migrazio-hazkundeak ez du aldaketa handirik eragin. EAEn ekitate-indizea 0,66 berean mantendu da 2005etik 2010era, urte bakar batean aldatu gabe. Aniztasun-mailari buruzko datuetan ez bezala, ekitate-mailari buruzkoetan ez dago alde handirik Lurralde Historikoen artean.

Ekitate-maila Gipuzkoan da handiena: 0,69ko indizea. Ondoren, Araban (0,68) eta azkenik Bizkaian (0,65). Datuen argitan, beraz, EAE osoan eta hiru lurraldeetan nazionalitateen banaketa antzekoa da, oro har.

2005etik 2010era arteko bilakaerari dagokionez, 1. grafikoak argi eta garbi adierazten du aniztasunak goranzko joera izan duela lurralde guztietan, eta hazteko eritmoa ere antzekoa izan dela denetan, baina badira zenbait nabardura. Hala, jabetuko gara aniztasuna eritmo nahiko iraunkorrean hazi zela 2009. urtera arte eta, aldiz, 2010ean moteldu egin zela goranzko joera hori. Krisi ekonomikoaren ondorioz migrazioaren hazkundea moteldu egin da eta horixe da, hain zuzen, hazkundeak izan duen geldialdi horren arrazoia.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Araba	0,36	0,39	0,44	0,50	0,56	0,59
Gipuzkoa	0,24	0,28	0,32	0,38	0,42	0,43
Bizkaia	0,25	0,29	0,32	0,36	0,40	0,42
EAE	0,26	0,30	0,34	0,39	0,44	0,45


	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Araba	0,68	0,68	0,68	0,68	0,68	0,68
Gipuzkoa	0,69	0,69	0,69	0,68	0,68	0,69
Bizkaia	0,66	0,65	0,64	0,63	0,64	0,65
EAE	0,66	0,66	0,66	0,66	0,66	0,66

Ekitate-maila Gipuzkoan da handiena: 0,69ko indizea. Ondoren, Araban (0,68) eta azkenik Bizkaian (0,65). Datuen argitan, beraz, EAE osoan eta hiru lurraldeetan nazionalitateen banaketa antzekoa da, oro har.

Lurraldez lurralde ekitate-indizeak izan dituen joerak adierazi dira 2. grafikoen. EAEn eta Araban ekitate-maila ez da aldatu 2005etik 2010era. Gipuzkoan, egonkortasuna izan da nagusi, 2008an eta 2009an izan ezik: urte horietan zertxobait behera egin zuen Gipuzkoako indizeak, 0,69tik 0,68ra, Arabakoaren pareraino. Ekitate-mailak Bizkaian izan ditu gorabeherarik handienak. 2005etik 2008ra ekitate-maila horrek 0,66tik 0,63ra egin zuen behera, eta, aldiz, 2009tik hasi eta 2010era gora egin zuen berriro, 0,65era iristeraino.

Laburbilduz, aniztasun-indizearen eta ekitate-indizearen emaitzek eta bilakaerak egoera eta joera desberdinak adierazten dituzte. Hala, gizartearen aniztasuna hazi egin da urtea joan eta urtea etorri, eta, aldiz, atzerritarren kolektiboa osatzen duten nazionalitateen ehunekoa ez da askorik aldatu urteotan guztietan. Bestalde, Lurralde Historiko bakoitze-ko bi indizeak batera aztertu ondoren, aniztasunaren hiru eredu edo tipologia bereizten dira, EAEn emaitza orokorrak erreferentziatzat hartuta.

Bizkaian, bai aniztasuna eta bai ekitatea apalagoak dira. Hau da, atzerritar gehien lurralde horretan bizi bada ere,




demografia aldetik garrantzi oso handia dutenez, horrek apaldu egiten du aniztasun-mailan duten eragina. Horrez gainera, ekitate-maila txikiak adierazten du nazionalitate batzuek garrantzi handiagoa dutela atzerritarren kolektibo osoaren gain.

Gipuzkoan, aniztasuna txikiagoa da, baina atzerritarren ekitatea handiagoa. Horrek adierazten du atzerritarren presentziak ez duela aniztasun handirik sortzen eta, gainera, nazionalitate nagusi batzuetan biltzen direla atzerritar gehienak.

Arabak da handiena aniztasun- eta ekitate-maila. Horrek adierazten du atzerritarrak asko direla, kolektibo anitza dela atzerritarrena, nazionalitate ugari osatua, eta, orobat, biztanle kopuru aldetik parekoak direla nazionalitate horiek.

Lurralde Historiko bakoitzean migrazioaren fenomenoak hainbat bereizgarri ditu eta, hain zuzen, ezaugarri horien arabera dira aipatutako aldeak.



## 4. Aniztasuna eskualdez eskualde

EAEko eta hiru Lurralde Historikoetako analisiak aniztasunaren irudi orokorra eskaintzen digu. Emaizak eskualdez eskualde aztertuz gero, berriz, aukera izango dugu eskualde eta herri bakoitzean zer egoera sozial dagoen zehaztasun handiagoz jakiteko. EAE osatzen duten eskualde bakoitzean zenbat nazionalitate dauden adierazi da 3. grafikoan. Aldeak nabarmenak dira eta horiek azaltzeko arrazoiak bi dira, funtsean: lehenik eta behin, eskualdeak zer tamaina demografiko duen, eta, bigarrenik, migrazio-fluxuak erakartzeko zer gaitasun duen.


Hala, datuek erakusten dute EAEko hiru hiriburuak kokatzen diren hiru eskualdeak direla nazionalitate gehien hartzen dutenak: Arabako Lautada 119, Donostia 127 eta Bilbo Handia 144. Beraz, hiriguneetako jende-multzo handietan da zabalena atzerriko nazionalitateen mosaikoa. Beste muturrean landa-eremuetako eskualdeak daude, nagusiki udalerririk txikiz osaturikoak: Arabako Mendialdea, Arabako Ibarak eta Gorbeialdea, esaterako. 40 nazionalitate baino gutxiago daude horietan.


4. grafikoak, berriz, 2010. urtean eskualde bakoitzean zer aniztasun- eta ekitate-indize zegoen adierazten du. EAEko aniztasun-indizea erreferentziatzat harturik, hogeit

atirik hiruk baino ez dute indize altuagoa: Arabako Errioxak (0,50), Bidasoa Behereak (0,52) eta Arabako Lautadak (0,63). Bestalde, hogeit eskualde horietatik hamalauk atzeritarren ekitate-maila handiagoa dute EAEkoa baino (0,66).

Aniztasun-mailaren arabera, 2010. urtean eskualde bakoitzean non sailkatu zegoen adierazi da 1. mapan. Aniztasun-indizea aintzat hartuta egin da sailkapen hori. Hogeitik bitan aniztasun-maila handia da (Arabako Lautada eta Bidasoa Beherea), zazpitan nahiko anitza (Bilbo Handia, Durangaldea, Markina-Ondarroa, Urola Kosta, Goierri, Donostia eta Arabako Errioxa), beste zazpitan anitza (Plentzia-Mungia, Gernika-Bermeo, Arratia-Nerbioi, Debarrena, Gorbeialdea, Arabako Ibarak eta Arabako Mendialdea), eta, azkenik, lau eskualdetan aniztasun-maila oso txikia da (Enkarterriak, Arabako Kantaurialdea, Debagoiena eta Tolosaldea).

Ekitatetari dagokionez, egoera erabat bestelakoa da: hogeit eskualdetatik hamalautan atzeritarren kolektiboaren ekitatea handiagoa da EAEkoa baino, eta beste seietan apalagoa. Alde horretatik, Arabako Mendialdean (0,80) eta Urola Kostan (0,75) da handiena ekitate-indizea, eta, aldiz, apalena, Gernika-Bermeon (0,65) eta Enkarterrietan (0,62).






Bi indizeak batera aztertuta eta EAeko emaitza orokorra erreferentziatuz hartuta, hogeitau eskualdeak lau multzotan edo tipologiatan sailkatzen dira, aniztasunari dagokionez. Aniztasunaren arabera eskualdeak zer-nolakoak diren

adierazi da modu grafikoan 2. mapan. Eta 3. taulan, berriz, tipologia bakoitzean bizi den biztanleria guztia, bertakoa eta atzerrikoa adierazi da, zenbakitan eta ehunekotan.

	Bertakoa		Atzeritarrak		Biztanleria guztira		
	K	%	K	%	K	%	
1. mota	Aniztasun apalagoa / Ekitate handiagoa	677.049	33,21	40.285	28,91	717.334	32,93
2. mota	Aniztasun apalagoa / Ekitate apalagoa	1.050.232	51,51	67.689	48,57	1.117.921	51,32
3. mota	Aniztasun handiagoa / Ekitate handiagoa	301.300	14,78	30.424	21,83	331.724	15,23
4. mota	Aniztasun handiagoa / Ekitate apalagoa	10.389	0,51	971	0,7	11.360	0,52

1. mota aniztasun apalagoa eta ekitate handiagoa atzeritarren artean	2. mota aniztasun apalagoa eta ekitate apalagoa atzeritarren artean
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tipologia horretan daude eskualde gehienak, hogeitik hamabi: Debagoiena, Arratia-Nerbioi, Debarrena, Arabako Kantaurialdea, Donostia, Gorbeialdea, Markina-Ondarroa, Arabako Mendialdea, Plentzia-Mungia, Tolosaldea, Urola Kosta, Arabako Ibarrak.</li> <li>• Biztanleen %32 tipologia hori duten eskualdeetan bizi da. Eta jatorriaren arabera, atzeritarren %28 bizi da eskualde horietan eta bertako biztanleen %33.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tipologia horretan bost eskualde daude: Durangaldea, Enkarterriak, Gernika-Bermeo, Goierri eta Bilbo Handia.</li> <li>• Biztanleen %51 tipologia hori duten eskualdeetan bizi da. Eta jatorriaren arabera, atzeritarren %48 bizi da eskualde horietan eta bertako biztanleen %51.</li> </ul>
3. mota aniztasun handiagoa eta ekitate handiagoa atzeritarren artean	4. mota aniztasun handiagoa eta ekitate apalagoa atzeritarren artean
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tipologia horretan bi eskualde daude: Bidasoa Beherea eta Arabako Lautada.</li> <li>• Biztanleen %15 tipologia hori duten eskualdeetan bizi da. Eta jatorriaren arabera, atzeritarren %21 bizi da eskualde horietan eta bertako biztanleen %14.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tipologia horretan eskualde bakarra dago, Arabako Errioxa.</li> <li>• Biztanleen %0,5 tipologia horretako eskualde bakarrean bizi da. Jatorriaren arabera, atzeritarren %0,7 bizi da eskualde horietan eta bertako biztanleen %0,5.</li> </ul>



## 5. Ondorioak

- Urtez urte euskal gizartea gero eta anitzagoa da gizarte hori osatzen duten biztanleen jatorriari dagokionez. NBEko kide diren herrialdeen ia %85 dago ordezkatuta atzerriko nazionalitateen mosaiko horretan; gure gizartea osatzen duten kultura, hizkuntza eta jatorri ugarien adierazle da datua.
- Ez dago lotura zuzenik nazionalitate kopuruaren, atzerriar kopuruaren eta aniztasun-mailaren artean. Atzerriar gehien eta nazionalitate gehien dituzten lurraldeak ez dira beti anitzenak. Batez ere biztanle gehien bizi den lurraldeetan gertatzen da hori.
- EAEn lau aniztasun-mota identifikatu dira. Funtsean bi faktoreen arabera zehazten dira tipologia horiek: atzerriko biztanleek biztanleria osoan duten garrantzi erlatiboaren arabera, batetik, eta atzerriarren kolektiboan dagoen barne-aniztasunaren eta -ekitatearen arabera, bestetik.
- Lurralde Historikoen artean Araba da anitzena, baina Gipuzkoan parekoagoa da nazionalitateen ehunekoa; hau da, nazionalitateen banaketa orekatuagoa da. Bizkaian, aldiz, aniztasun-maila apalagoa da Araban baino, eta, aldi berean, atzerriarren arteko parekotasuna ere apalagoa da. Horrek adierazten du Bizkaian nazionalitate nagusi batzuetako kide direla atzerriar gehienak.
- Eskualdeak tipologiaren arabera sailkatuta, aniztasuna eta ekitatea EAE osokoa baino txikiagoa da eskualde gehien-gehienetan. Ondoren, aniztasun apalagoa baina atzerriarren artean oreka edo ekitate handiagoa duten eskualdeak dira ugariak. Gainerako tipologia oso urriak dira eskualdeka.
- Biztanleen %51 aniztasun-maila apalagoa eta nazionalitateen artean desoreka handiagoa duten eskualdeetan bizi da. Hau da, eskualde horietan nazionalitate batzuk nagusitzen dira atzerriarren artean edo nazionalitate horietan biltzen dira atzerriar gehienak. Aldiz, biztanleen %32 aniztasun apalagoa baina atzerriarren artean oreka handiagoa duten eskualdeetan bizi da; hots, nazionalitate batzuek eta besteek demografian aldetik pareko garrantzia dute eskualde horietan. Biztanleen %15 aniztasun-maila handiagoa eta atzerriarren artean oreka handiagoa duten eskualdeetan bizi da. Azkenik, biztanleen %0,5 baino ez da bizi aniztasun handia baina nazionalitateen arteko oreka txikia duten eskualdeetan; nazionalitate batzuk nagusi diren eskualdeetan, alegia.

## BIBLIOGRAFIAKO NOBEDADEAK

### Etorkinek zerbitzu eta prestazioetara duten sarbidea, Euskal Autonomia Erkidegoan Ararteko

Azterlan honek badu alde on bat: pertsonen aitortutako eskubide sozialak aztertzen ditu, eta egoera administratiboaren eta jaioterriaren arabera, lurralde berean bizi diren pertsonen artean zer ezberdintasun dauden jartzen du agerian. Lortutako emaitzak ez datoz bat zirkulu batzuetan nagusitzen den diskurtsoarekin. Izan ere, diskurtso horrek sinestarazi nahi du etorkinek bertakoek baino gizarte prestazio eta zerbitzu gehiago jasotzen dituztela. Egiazkotasunik ez duen baieztapen hori guztiz bidegabeta da ikerlan horrek zehazten duen oraingo araudia ikusita, eta aurrez aurre geurtatu beharra dago, ez osagai xenofoboa duela bakarrik, baizik eta baita ere eskubide sozialak zabaltzea eragozten duen traba delako, eta horrela, giza eskubideak betetzera eragozten duelako.



EAEko Immigrazioari buruzko 2010eko Urtekaria deskargatu nahi baduzu, gure web orrian, [www.ikuspegi-inmigracion.net](http://www.ikuspegi-inmigracion.net), aurkituko duzu.

EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekariaren bidez, EAEko migrazioaren fenomenoaz zertan den sakon aztertu nahi izan da estatu osoko migrazioaren testuinguruaren barruan. Horretarako, arlo horretan aditu diren hainbat pertsonaren laguntzaz, immigrazioaren alderdi nagusiak aztertzen dira liburu honetan, baina datu estatistikoak emateaz gain, beste alderdi kualitatiboago batzuei ere erreparatzen zaie, besteak beste hauei: hezkuntza, demografia, lanmerkatua, hizkuntzak, erlijio-aniztasuna, pobrezia, gizarteratzea eta etorkizunean egon daitezkeen joerak. Urtekariak alderdi horiek sakon aztertu nahi ditu, bai eta aldi berri honetan erantzunak eman nahi ere; izan ere, aniztasunaren kudeaketari eta gizarteratzeari ere gero eta indar handiagoa ematen zaio.

## BIBLIOGRAFIAKO NOBETADE GEHIAGO


**Guía para la gestión de la diversidad en entornos profesionales**  
*OBERAXE, 2011*



**Parad el racismo, no a las personas: perfiles raciales y control de la inmigración en España**  
*Amnistía Internacional, 2011*



**¿Generaciones excluidas: mexicano-estadounidenses, asimilación y raza**  
*Edward E. Telles eta Vilma Ortiz, 2011*



**Estrategia integral contra el racismo, la discriminación racial, la xenofobia y otras formas conexas de intolerancia**  
*MTIN, 2011*



**Testing inmobiliarias 2011: investigación sobre la discriminación en el acceso a una vivienda en alquiler de la población extranjera de Bilbao**  
*SOS Arrazakeria eta CEAR-Euskadi, 2011*



**Migrants in Europe: a statistical portrait of the first and second generation**  
*Eurostat, 2011*



## DEIALDIAK

**Argazki-lehiaketa eta erakusketa:**  
**Nazioarteko migrazioak Espainian**

Aurkezteko epea 2012ko martxoaren 1ean amaituko da  
*Nazioarteko Migrazioak Espainian VII Kongresua*  
*Antolatzailea: UPV/EHU. Laguntzailea: Ikuspegi-Immigrazioa*  
[www.congresomigraciones2012.com/eu/concurso-de-fotografia/](http://www.congresomigraciones2012.com/eu/concurso-de-fotografia/)

**ZUBIAK: Aniztasunaren aldeko eta Arrazakeriaren kontrako**  
**Laburmetrai Lehiaketa**

2012ko otsailaren 24 da DVDa jasotzeko epemuga  
*Getxoko Udala*  
[http://www.getxo.net/euskera/noticias/servicios\\_sociales/getxo\\_interculturalidad\\_av0010.asp?MNU\\_id=251](http://www.getxo.net/euskera/noticias/servicios_sociales/getxo_interculturalidad_av0010.asp?MNU_id=251)



EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsulta ezazu gure web orria:  
[www.ikuspegi-immigracion.net](http://www.ikuspegi-immigracion.net)

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk:  
- Dokumentazio zentrua: kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua ezaintzen ditu.  
- Informazio estatistikoa.

Gurekin harremanetan jartzeko:  
Tlf.: 94 601 82 75  
e-mail: [info@ikuspegi-immigracion.net](mailto:info@ikuspegi-immigracion.net)

Postaz eta pertsonalki helbide honetan aurki gaitzakezu:  
Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia

